



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia



**BELDUR
BARIK
LEHIAKETA
2012**

BELDURRIK BARIK LEHIAKETA ONDARROAN

Hirugarren urtez Beldur Barik lehiaketa antolatuko dugu. Horren helburua neska eta mutilek emakumeen kontrako diskriminazioak ikustarazten dituzten adierazpen artistikoak saritzea eta bultzatzea da. Lanek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarrerak ikustarazi behar dituzte.

Zein da zure beldur barik jarrera? ERAKUTSI IEZAIGUZU!

Sariak:

- 1. Kategoriako saria (12-17urte): 500€. Talde lana hobetsiko du epaimahaiak.**
- 2. Kategoriako saria (18-26 urte): 500€**
- Horrezaz gain, Udalak herritar guztien partaidetza bultzatzeko asmoarekin, **27 urtetik gorako** partaideen artean, aparteko sari bat emango du: 250€koa. Parte hartu nahi duenak emakume@ondarroakoudala.net posta elektronikora, eta soilik horretara, bidali behar du bere proposamena.

Oharra: sarien ordainketari dagozkion atxikipenak aplikatuko zaizkio (PFEKGZ).
OINARRIAK

Zeintzuentzat? 12 urtetik 26 urtera bitarteko gazteak aurkeztu ahal dira sari hauetara, baina Ondarroako sarietarako Ondarroan erroldatutakoak baino ez dira kontuan hartuko.

Nola parte hartu:

1.eta 2. Kategoriako (12-26 urte) Lan proposamenak helbide honetara bidali behar dira jarrera@beldurbarik.org

3. kategoriako (27 urtetik gora) partaideek, eta soilik horiek, helbide hoientara bidali beharko dituzte lan proposamneka: berdintasuna.ondarroa@gmail.com



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia



**BELDUR
BARIK
LEHIAKETA
2012**

Proposamenak posta elektronikoz aurkeztuko dira eta proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo plataforma baten esteka emanaz: youtube, vimeo, blip etab...

Aurkezteko epea: 2012ko urriaren 31

Lehiaketa bikoitza da: alde batetik, Berdinsareak Euskal Autonomia Erkidegoan antolatutakoa (1.000 euroko bi sari +herri saria: 300€) eta, bestetik, Ondarroako sariak. Bietan arauak berberak dira.

Informazio gehiago jasotzeko:

Ondarroako udal Berdintasun saila (Musika plaza z/g)

Tfnoa: 94 6833670- emakume@ondarroakoudala.net

Lehiaketaren oinarriak kontsultatzeko: www.ondarroa.eu edota www.beldurbarik.org